Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

*IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA ETXEITA, GETXOKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIAK*

*ZIURTATZEN DUT: Getxoko Udaleko Toki Gobernuko Batzarrak 2021eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bileran, besteak beste, honako hau erabaki duela:*

**27.- GETXON ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO (2020. URTEA) ENPRESEI ZUZENDUTAKO UDAL-LAGUNTZEN PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK ALDATZEKO PROPOSAMENA, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDEREN DEIALDIAREN BARRUAN.**

Tokiko Ekonomia Sustapenaren Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1. 2020ko enplegurako laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea, 15.2 a) atala kenduz, 15. 2 artikulua honela erredaktatuta gera dadin:

15.2 Laguntza hauen entitate onuradunek izaera espezifikoarekin ezarritako betebeharrak izango dituzte:
Langilearen lan-egonkortasuna mantentzea laguntza-eskaeran ezarritako aldian. Kontratua eteten edo suntsiarazten bada, honako arrazoiak ezingo zaizkio enpresa edo entitate kontratatzaileari egotzi:

-Enpresari egotzi ezin zaizkion arrazoitzat jotzen dira Langileen

*IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA ETXEITA, SECRETARIO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.*

*CERTIFICO: Que la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 26 de enero de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:*

**27.- MODIFICACIÓN DE LA CONVOCATORIA Y LAS BASES DEL PROGRAMA MUNICIPAL DE AYUDAS DIRIGIDAS A LAS EMPRESAS PARA PROMOVER LA GENERACIÓN DE EMPLEO EN GETXO (AÑO 2020), ENMARCADAS EN LA CONVOCATORIA DE LANBIDE DE AYUDAS PARA ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Promoción Econcómica, se acordó:

1. Modificar las bases reguladoras de las ayudas al empleo 2020, eliminando el apartado 15.2. Apartado a), de manera que el artículo 15. 2 queda redactado de la siguiente manera:
15.2. Las entidades beneficiarias de estas ayudas tendrán las obligaciones establecidas con carácter específico:
Mantener la estabilidad laboral del trabajador/a durante el periodo establecido en la solicitud de ayuda. En caso de suspensión o extinción del contrato, las siguientes razones no podrán ser imputables a la empresa o entidad contratante:
-Se entienden como razones no imputables a la empresa las recogidas



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/01/26 Fecha: 26/01/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/01/28 Fecha: 28/01/2021

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/01/26 Fecha: 26/01/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/01/28 Fecha: 28/01/2021

Estatutuaren 49. artikuluaren 1.d eta 1.e idatz-zatietan jasotakoak eta 40., 45. (salbu eta 1.b eta 1.b idatz-zatiak), 52. eta 54. artikuluetan jasotakoak (azken bi kasu horietan, langileak ez badio errekurtsoa jartzen kontratua suntsiarazteari, edo, bestela, hura bidegabekotzat jotzen ez badu autoritate eskudunak).

- Langileak proba-aldia gainditu ez duelako baja ematea ere ez zaio enpresari egotziko.

Hori horrela, kontratua eteteko eta/edo suntsiarazteko arrazoiak kontratatutako pertsonari egotzi badakizkioke edo proba-aldia gainditu ez duelako sortu badira, pertsona hori ordeztu egin beharko da (hura ordezteko gehieneko epea 21 egun naturalekoa izango da) 2 idatz-zatian jasotakoa betetzen duen beste langile batekin; kontratazio hori egin beharko da diru-laguntza hasi zuen pertsonaren kontratazio-aldiari gehitu eta diru-laguntzaren zenbatekoa ezarri zuen aldira iristeko aldirako, 8 idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz. Kasu horietan, laguntza ekonomikoak ez du gaindituko hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, oinarri hauen 8 idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz. Diru-laguntzaren zenbatekoa mugatu zuen epea bete ezin izatekotan, kontratazio-aldi errealaren hainbanaketa bat egingo da. Kontratatutako pertsona 21 egun naturaleko epean ez badute aldatzen, enpresak kontratuko bete gabeko epeari dagokion diru-laguntzaren zati proportzionala ordaindu beharko du.

Kontratu amaieraren kausak enpresari

en los apartados 1.d y 1.e del artículo 49, y las recogidas en los artículos 40, 45 (a excepción de los apartados 1.a y 1.b), 52 y 54 del Estatuto de los trabajadores (en estos dos últimos casos siempre que el trabajador/a no recurra la extinción del contrato, o, en caso contrario, ésta sea declarada procedente por la autoridad competente).

-Tampoco se entenderá como causa imputable a la empresa la baja del/a trabajador/a por no superar el periodo de prueba.

De esta forma, si las causas de suspensión y/o extinción son imputables a la persona contratada o se producen por no superar el periodo de prueba, la persona deberá ser sustituida (el plazo máximo para la sustitución será de 21 días naturales) por un o una nueva trabajadora que responda a lo establecido en el apartado 2; esta contratación deberá realizarse por un período que sumado al período de contratación de la persona que inició la subvención alcance el plazo que determinó el importe de la subvención, según lo establecido en el apartado 8. En dichos supuestos la ayuda económica no superará el importe de la subvención concedida inicialmente conforme a lo establecido en el apartado 8 de estas bases. En caso de no poder cumplir con el plazo que determinó el importe de la subvención, se realizará una prorrata del periodo real de contratación. Si la persona contratada no es sustituida en el plazo máximo de 21 días naturales, la empresa deberá reintegrar la parte proporcional de la subvención correspondiente al periodo del contrato que quede sin cumplir.

Si las razones de la extinción del

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

leporatu ahal izatekotan, emandako diru-laguntza osorik ordaindu beharko du.

contrato fueran imputables a la empresa, ésta deberá reintegrar la totalidad de la subvención concedida.

2.- Behin betiko oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta BDNSn argitaratzea.

2.- Publicar las bases definitivas en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la BDNS.

***Eta horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, Akta oraindik ez dela onartu ohartarazita, ziurtapen hau egin, eta Alkateak ontzat eman ostean sinatu dut, Getxon.***

***Y para que conste y surta efectos, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, expido la presente certificación, que visada por la Alcaldesa, firmo en Getxo.***

**T.Gob.B. 2021.01.26 / Gob.L.26.01.2021**

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/01/26 Fecha: 26/01/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/01/28 Fecha: 28/01/2021